

2025EKO EKINTZEN MEMORIA

URTARRILA

- 8an eskualdeko landa garapeneko lantaldeko bileran parte hartu dugu; hilabete honetan zehar ere bilera gehiago antolatu dira gai honen inguruan.
- 9an Goitur-eko aurtengo egitasmoa eta 25. urteurrena azaltzeko prentsurrekoa antolatu dugu.
- 12an Ines Rodriguez, garun paralisia duen “influencer”a eta El Intermedio programako kolaboratzailea etorri da Goierriira turismo irisgarriaren promozioa egiteko asmoz.
- 14ean Guatemalako Huehuetenango Probintziako Fundación Yaman Kutx eta Guatemala osoko Fundación Pro Verde entitateekin lana egingo duten bekarioekin bildu gara turismoko formakuntza eskaintzeko asmoz; Territorio Huista deituriko eskualdearen egitasmo estrategikoa garatzen lagunduko dugu.
- 15ean Zeraingo turismo bulegoa eta Basquetour-ek kontrataturiko Ikei aholkularitzarekin bildu gara ETI (Enpresa Turistiko Adimenduna) proiektuaren jarraipena egiteko.
- 16an Goierriko sagardotegien denboraldi berria aurkezteko prentsurrekoa ospatu da Ordizian: ekitaldiaren buru eta gonbidatu gisa, Ordizian azkena itxi zen Arana sagardotegiko Fernando Arana ordezkaria izan da gure artean.
- 16an baita ere, Basque Destination errezeptiboarekin elkartu gara aurtengorako prestatu dituzten pakete turistikoak ezagutu eta Goierriko produktu turistiko desberdinak bertan sartzeko eta saltzeko helburuarekin baita ere.
- 17an Foru Aldundiko Turismo Sailarekin bildu gara, Foru Aldundia eta Goitur-en arteko aurtengo hitzarmena adostu dugularik, Kataluniako azoka turistikoei dagokion hitzarmena.

- 18an aurtengo Basque Luxury aldizkaria aurkeztu da: Goierriko natura eta kirolari buruzko erreportaje bat argitaratu da bertan; online formatoan ere badagoen aldizkari hau Euskal Herria, Kantabria, Errioxa eta Frantziako hotel eta zerbitzu turistikorik garrantzitsuenetan egongo da eskuragai (jatetxe, denda, museo, etb.) eta 901.000 irakurle ditu denera. Aldizkaria munduko 120 herrialdetako 5700 hotel garrantzitsu baino gehiagotan dago kontsultarako (The Ritz, Carlton, Park Hyatt, Marriott, Four Seasons, Mandarin, Intercontinental, Relais&Chateaux, Bulgari Hotels, Hilton eta Le Meridien), Bilbo, Estatua, Europa eta munduko hainbat aireportuetan eta hegazkin konpainietan (Iberia, British Airways, Air Canada, Air Astana, Jet Blue, Austrian Airlines, Eurowings, Israel Airlines, Aerolíneas Argentinas, Quantas, Turkish Airlines, Lufthansa, Swiss, Alitalia,...), RENFE, Eurostar, Via Rail Canada eta SBB (Suitza) trenak eta kruzeroetan ere (Silverseas, MSC Cruises, Carnival, Viking,...)
- 21ean "Q de Quesos" Klub-ak Ordiziako Udalari emandako saria jaso dugu Madrilén (FITUR azokako datekin bat egin duelako sari emateak); sari honek Ordiziak gaztaren inguruan antolatzen dituen azoka eta ekitaldiak goraipatzen ditu.
- 22an Goierri Barnetik ekimena aurkezteko prentsaurrekoa egin da: Goitur, eskualdeko lan dinamika honetako partaide da hasieratik eta lankidetzazko gobernantzaren hitzarmena sinatu du.
- 29. urtez, Eusko Jaurlaritzako standaren barruan joan gara Madrilgo FITUR azokara 22tik 26ra. Azokak iraun duen bost egun hauetan guregana heldu direnak Goierriko mapa eta gida desberdinekin topatu dira; era berean, egun hauetan zehar, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiko agintari desberdinekin elkartzeko aukera ere izan dugu, eta Turismo Ministerioko ordezkari eta arduradun desberdinekin bildu gara Goierriko lehiakortasuna eta promozioa aztertzeke asmoz.
- 27an ZUM editorialarekin bildu gara editorial honetako gida desberdinetan azaltzen den Goierriko informazio turistikoa nola sendotu aztertzeke helburuarekin.
- 29an El Salvador-eko Los Izalcos eskualdetik etorritako ordezkari batzuekin bildu gara beraiek lantzen ari diren garapen turistikorako egitasmoa gainbegiratzeko, Euskal Fondoarekin dugun hitzarmena tarteko.
- 29an baita ere, Sales International México komunikazio eta bidai agentziako arduradunak etorri dira Goierriko eskualdeko produktu turistikoko gastronomikoak ezagutzera.

- Urtarrilean hasi eta urte bukaerara arte, Nekatur, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen webgunean, promoziorako Goierriko banner bat txertatu dugu.
- Urte hasiera honetan ere Irukom enpresarekin adosturiko ekintza plana martxan jarri dugu: Goitur-eko sare sozialak dinamizatuko dira urte guztirako egin den egutegiaren bitartez.

OTSAILA

- 5ean Beasaingo Odolkiaren Kofradiaren ekitaldietan parte hartu dugu: Odolkiaren Kofradiak Goitur izendatu du aurten ohorezko kofrade, odolkiaren eta gainontzeko produktu gastronomikoen alde eginiko promozioarengatik.
- 6an Lizarrustiko interpretazio zentroaren eta aterpetxe berrituaren inaugurazioan parte hartu dugu.
- 6an baita ere Deloitte aholkularitza enpresarekin bildu gara: Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailaren gobernantza eredu berria dela eta, horren inguruko bilera egin dugu.
- 12an Basquetour-eko aurtengo plangintza aurkezteko antolatu den ekitaldian parte hartu dugu.
- 12an baita ere, Foru Aldundiko Turismo Zuzendariarekin elkartu gara Aldundiak eta Goitur-ek elkarlanean aurrera daramatzagun hainbat gai aztertzeke helburuarekin.
- 17an Gipuzkoako eskualdetako turismo mahaian parte hartu dugu eta promoziorako ekintza desberdinak aztertu ditugu.
- 18an Ordiziako Oiangu parkearen kudeaketa eta erabilera desberdinak aztertzen ari den aholkularitza enpresarekin bildu gara aisiaren ikuspegia bertan txertatzeko helburuarekin.
- 20ean, Basquetour-eko lehiakortasun arloak antolaturiko bilera batean parte hartu dugu: bertan, aurtengo programa desberdinak aurkeztu dizkigute.
- 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Zuzendariarekin eta Tolosaldearekin bildu gara Euskal Herriko Trail Estazioaren proiektu berria eta kudeaketa aztertu asmoz.

- 26an eskualdeko landa garapeneko lantaldeko bileran parte hartu dugu beste behin ere.
- 28an Goierriko erreportaje bat argitaratu dugu “Descobrir Catalunya” aldizkariko martxorako alean.
- Otsailean ere Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko arduradun teknikoekin bildu gara aurtengo dirulaguntzen dekretuak aztertu eta Goierriko osagarriak izango diren promozio ekintzak ezagutzeko asmoarekin.
- Otsailean zehar ere ETI (Enpresa Turistiko Adimenduna) pilotu proiektua garatzen ari diren enprekin bildu gara, modelo berria ezartzen jarraitzeko.

MARTXOA

- 4tik 6ra Berlin-go ITB azokan parte hartu dugu gure errezeptiboen bitartez, eta hauen bidez aurkeztu ditugu eskualdeko pakete turistiko desberdinak.
- 5ean Ordiziako Jakintza Ikastolako arduradunekin bildu gara, eta Gaintza eta Ordizia arteko Peri Bidea senderismoko egitasmoa lantzen ari direnez, Goitur-en elkarlana eta laguntza adierazi diegu.
- 11an Foru Aldundiko Turismo Diputatuaren bisita jaso dugu Gr 283 proiektuari emandako sariaren aitortza bezala: bisitan zehar Idiazabal Gaztaren Ibilbideari buruzko sorrera eta kudeaketa azaldu diogu.
- 13an Nekatur-eko, Euskadiko nekazalturismo eta landetxeen elkarteko batzarrean parte hartu dugu. Nekatur-ek lehen aldiz, elkarteko enbaxadore izendapenaren moduko saria sortu du eta Goitur-ek jaso du lehen sari hau; era berean, bideo bat grabatu da Goierriko errekonozimendu honen lekuko bezala eta medio desberdinekin hainbat elkarrizketa egin ditugu aipamen hau dela eta.
- 17an Goitur-en 25. urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu dugu: bertan, eskualdeko ordezkari politikoak, bazkide pribatuak, Eusko Jaurlaritzako Turismoa, Merkataritza eta Kontsumo Sailburua, Foru Aldundiko Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketako Diputatua eta hainbat gonbidatu egon dira.

- 18an Ordiziako Oiangu parkeko erabilera desberdinei buruzko azterketa eta hausnarketa batean parte hartu dugu aholkularitza enpresa baten laguntzaz.
- 20ean Basquetour-eko marketing arloko arduradun eta teknikoeekin bildu gara: eskualdeko produktu turistikoak sartzan dituzte beraien kanpainetan, eta ekintza berriak adosteko helburuarekin bildu gara.
- 21ean Gipuzkoako Merkatal Ganbararekin elkartu gara bi erakundeen arteko erlazioak sendotu eta gure enpresak beraiekin harremanetan jartzeko bide berriak zabaltzeko helburuarekin.
- Hilabete honetan zehar eta Goitur-eko urteurrenarekin lotuta, hainbat komunikabideekin elkarrizketak egin ditugu; ETB-ko Sustraia programako atal bat grabatu dugu Goierri gure urteurrenarekin lotuta, eta Ondoan aldizkariko alean eskualdeari buruzko erreportaje zabal bat argitaratu da.
- Urteurrenarekin lotuta baita ere, martxoko igandeetan goierritarrentzat ate irekiak antolatu ditugu eskualdeko museo eta interpretazio zentroetan, bertakoek etxe inguruan dutena ezagutu dezaten.
- Martxoan zehar eta apirilean ere, Idiazabalgo Gazta Azoka prestatzeko antolatu diren komisioren desberdinetan parte hartu dugu.

APIRILA

- 2an, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailburuaren presentziarekin eta Gasteizen ospatu den ekitaldi baten bidez, Euskadiko Turismoaren Kode Etikaren programan parte hartu duten Goierriko 16 enpresen ziurtagiriak banatu dira.
- 7tik 12ra ospatu den Euskadiko Itzuliari laguntza bat eman diogu, Beasainen amaitu eta hasi diren etaparen kontutuan hartuta (9 eta 10), eskualdeko errekurtsu eta produktu turistiko desberdinak promozionatzeko helburuarekin; etapek zeharkatzen dituzten herrietako informazioa eta eskualdeko dossier orokorra banatu zaie Itzuliako esatariei.
- 10ean eskualdeko Turismo Mahaia elkartu da, Aste Santua baino lehen izango ditugun promozio ekintzak partekatze asmoz eta Aste Santua eta udarari begira landuko ditugun estrategia desberdinak zehaztearren.

- 10ean baita ere Berria egunkariko oporretarako gehigarrian Goierriko erreportajea argitaratu dugu eta online edizioan ere erreportaje hau 15 egunetan zehar egon da ikusgai.
- Aste Santu atarian, hainbat komunikabideekin elkarriketak egin ditugu Aste Santu aurreko balorazioa eginez eta Goierriin antolatu diren ekintza eta agenda berezien berri emanez.
- 14ean, Foru Aldundiak Gipuzkoako mapa turistikoa aurkezteko antolatu duen prentsaurrekoan parte hartu dugu.
- 17tik 20ra Bilboko BasqueFEST azokan parte hartu dugu bederatzigarren aldiz: lau egunetan zehar Goierriko informazio turistikoa banatu dugu Areatzako karpan eta gure produktu gastronomikoen dastaketak ere egin ditugu (gazta eta sagardoa). Beste behin ere erabat arrakastatsua izan da aurtengo edizio hau.
- 23an, Ordiziako Artzai eguna dala eta, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoen bilakaeraren inguruan hitz egiteko.
- 29an, Gaintza eta Ordizia arteko senderismoko Peri Bidea dela eta, Jakintza Ikastola, Ordiziako, Aramako, Altzagako eta Gaintzako Udalak eta Gipuzkoako Mendi Federazioarekin bildu gara, ibilbide berri honen homologazio aukerak aztertzeke helburuarekin.
- Apirila erdialdetik eta maiatza erdirarte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Euskal Herria, Errioxa, Kantabria eta Burgos lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- Apirila bukaeran, Pazkoko Astea eta Arabako San Prudentzio jaia eta maiatzak lehenengoko zubia baino lehen, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportajeak sartu ditugu eta Ordiziako Artzai Eguna, Idiazabalgo Gazten Azoka eta beste hainbat ekintzen berri eman dugu apirilaren bukaeratik maiatzaren hasierara arte.
- Apirila, maiatza eta iraileko hilabetetan zehar Goierriko bideoa emitituko da Diario Vasco egunkariko webgunean eta 400.000 inpresio sartuko dira guztira denbora epe horretan elkarriketa desberdinak egiteaz gain.

- Apirilean zehar ere Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen PTSRT errekurtsotzako turistikoaren lurralde plan sektorialaren barruan hainbat elkarrizketa egin ditugu gai hau lantzen ari den enpresarekin: eskualdeko hainbat errekurtsotzako turistiko aztertu ditugu.
- Hilabete honetan zehar ere Euskal Herriko Trail Estazioa osatzen dugun kide guztien arteko hainbat bilera egin ditugu, proiektu berriko atal desberdinak gauzatzeko helburuarekin.

MAIATZA

- 3tik 4era, Idiazabalgo Gazta Azoka dela eta, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintariekin egoteko aukera baliatu dugu Goierriko proiektu turistikoaren bilakaeraren inguruan hitz egiteko.
- 7an fam-trip bat antolatu dugu Basquetour eta Foru Aldundiarekin batera Lgtbiq+ nitxoa komertzializatzen duten Europako eta Estatu Batuetako 14 bidai agentzientzat.
- 9tik 11ra BEC-eko Expovacaciones turismoko azokan parte hartu dugu; 26. aldiz aurkeztu ziren gure produktuak Bizkaian eta harrera ezin hobea eduki dugu.
- 11an Europako Bide Berdeen eguna ospatu dugu Mutiloa-Ormaiztegi Bide Berdeen zehar: ekintza honen antolakuntzan parte hartu dugu eta Bide Berdeen Fundazioarekin ere harremanetan egon gara, beraiei prentsa oharrean Goierriko ekimen hau ere sartu delarik.
- 12an bilera bat izan dugu Deustuko Unibertsitatea eta Madrilgo Nebrija Unibertsitatearekin batera: Turismoko Ministerioak eta Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak bultzatzen duten Europako GreenSmartTD proiektuan parte hartzen dugu; turismoaren deskarbonizazioa garatzeko lehen bilera antolatu dugu Ordizian.
- 14ean Eusko Jaurlaritzako Turismoa eta Ostalaritzako Zuzendaria den Clara Navas-en bisita jaso dugu Goierri: Goitur eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanak, egitasmo berriak eta dirulaguntzak aztertu ditugu.
- 14ean baita ere, Foru Aldundiak antolatutako aurkezpen batean izan gara Estatu Batuetako merkatu turistikoaren ezagutzeko.

- 19an Zegama-Aizkorri maratoiaren aurkezpenerako prentsaurrekoan parte hartu dugu Foru Aldundian.
- 19an baita ere Euskadi Gastronomika ekimeneko sariak banatzeko Eusko Jaurlaritzak Gasteizen antolatu duen lehen edizio honetako ekitaldian parte hartu dugu.
- 21ean Italiako Touring Club Italiano editorialeko Michele Bernelli idazlea etorri da Goierri; editorial honek lehen aldiz "Guida Verde – Paesi Baschi e Navarra" gida argitaratu behar du, eta hori dela eta, Goierriko produktu turistikoak ezagutzera gonbidatu dugu.
- 21ean baita ere, Zegama-Aizkorri maratokia dela eta, Goierri eskualdeari buruzko erreportaje bat grabatu dugu burdinaren gaiarekin lotutakoa maratoiko Depa aurkezlearekin (Zerain, Mutiloa, Ormaiztegi eta Beasain); kanal desberdinen bidez egingo da erreportaje honen zabalkundea. Goierritik igarotzen den Santiago Bidearekin loturiko beste programa bat ere grabatu da aste horretan bertan.
- 21ean ere, Diario Vasco-n, Zegama-Aizkorri maratoiari buruz atera duten gehigarrian, eskualdeari buruzko publizitatea sartu dugu bertan urtero egin izan dugun bezala.
- 23tik 25era Zegama-Aizkorri maratokia eta kilometro bertikala ospatu dira eta maratoiaz baliatu gara Basque Highlands marka turistikoa promozionatzeko garaian, Estatuko kate desberdinetako hainbat informatiboetan azaltzeaz gain. Aurten, Goitur-en aportazioa tarteko eta laugarren aldiz, zuzenean bota da proba TVE-ko Teledeporte kanalean, Katalunia-ko TV3 telebistan, ETB1-en, Golden Trail World Series-eko Youtube kanalean, Salomon-eko telebistan eta sare sozialen bidez: tartean, Goierriko bideoa eta publizitatea emititu da eta hemen ere elkarrizketa bat egin digute Estatu osoko eta nazioarteko telebistentzat.
- 27tik 28ra Bilboko Cristina Caballero (Viaja más por menos) eta Gasteizko Iñaki Ibaibarriaga (Guk Green) "influencer"ak ekarri ditugu eskualdeko produktu turistiko desberdinak ezagutzera, beraiek ondoren Goierriko berri eman dezaten.
- 29an Turismo Ministerioko SEGITTUR Elkartearekin bildu gara Helmuga Turistiko Adimenduna proiektuaren barruan aurten pasa dugun auditoriaren nondik norakoak azaltzeko helburuarekin.

- European Best Destinations Erakundeak, Europear Komisioko Turismoko webgune ofizialean, Goierri promozionatzen du aurten Europako lehen 10 destino turistikoen artean senderismoko atalean: Goierriarekin batera Finlandia, Kroazia, Belgika, Eslovenia, Errumania, Portugal eta Italiako beste destino batzuk daude; Estatuan, Goierri dago bakarrik. Turismo jasangarriaren atalean ere 2016. urtetik aurrera azaltzen gara 2015. urtean lortutako EDEN sariari esker; sekulako promozioa da honako hau, batez ere Europako bidai agentzia eta errezeptiboen aurrean.
- Hilabete zehar, Enpresa Turistiko Adimenduna pilotua egiten ari diren bi enprekin elkarlanean jarraitu dugu egitasmoa ezartzeko bidean.
- Hilabete honetan zehar Udalari desberdinetako turismoko komisioko eta bileretan parte hartu dugu, eta turismo arloan negozioak ireki nahi dituzten ekintzaileekin ere elkartu gara.
- Maiatzean ere, Lazkaoko Udalarekin elkarlanean, gymkana digital baterako egitasmoa lantzen hasi gara, herrian zehar garatuko den ibilbide kultural bat diseinatzeko; udara ondoren aurkeztuko da.

EKAINA

- 5ean Aitor Buendia kazetariak zuzenduriko “La ruta slow” programa oso bat grabatu da Goierri: eskualdeko gastronomiari buruzko saio bat egin dugu eskualdeko gastronomiarekin erlazionaturiko gonbidatu desberdinekin eta Foru Aldundiko Turismo Diputatuarekin; Radio Euskadi eta Radio Vitoria irratiak emitituko da saioa ekainean.
- 10ean Gipuzkoako Diputatu Nagusia den Eider Mendozaren eta Foru Aldundiko beste goi agintari eta Diputatu batzuen bisita jaso dugu Goitur-en 25. urteurrena dela eta; Goierriko Turismo Mahaia osatzen duten enpresa desberdinekin bildu da turismoaren bilakaera eta kezken berri jabetzeko.
- 14ean Gara egunkariak argitaratutako Euskal Herriko gidan Goierriko informazio turistiko guztia sartu dugu erreportaje moduan eta eskualdeko eskaintza turistikoari buruzko grabazio bat ere egin da.
- 19an Enpresa Turistiko Adimenduna programa pilotuaren auditoritza pasa dugu AENOR-eko auditore batekin Ordiziako d’Elkatuz Zentroan.

- 25ean Gipuzkoari buruzko Ipuscua erakusketaren inaugurazioan izan gara Ormaiztegi Zumalakarregi museoa.
- 26an Gipuzkoako egitasmoturistikoberriaren aurkezpenean parte hartu dugu hizlari bezala Donostiako Arima hotelean.
- 27an Berria egunkariarekin bildu gara aurten garatu eta argitaratu nahi duten misterio jolas bati buruz eta Goitur-eko babeslegoa edukiko duena: nazioartean badaude horrelako jolasak baino eskuartean dugun hau Euskal Herriko lehena izango da, euskaraz egongo da, ekintzaileak Goierrikoak dira eta Aralar Parke Naturaleko eta inguruko ondarea jarriko du balioan; publiko guztientzako misterio joku bat izango da, ikastetxeetan ere landuko dena eta Durangoko azokan aurkeztuko da.
- Basque Magazine aldizkariak argitaratu duen udako alean Goierriko promozioa egin dugu.
- Ekainean ere Udalerri desberdinetako turismoko komisio eta bileretan parte hartu dugu.
- Euskal Herriko Trail Gunearen proiektu berriaren inguruko hainbat bilera antolatu ditugu hilabete zehar egitasmoa garatzen jarraitzeko.

UZTAILA

- 1ean Donostiako turismo bulegoetan, udaran egongo diren informatzaile guztiekin bilera bat antolatu dugu: bertan, Goierriko produktu turistikoguztiak aurkeztu dizkiegu gure eskualdeko informazio hobe eskaini dezaten.
- 2an Segura Irratiarekin udarako adostu dugun programa berezia martxan jarri dugu: eskualdekoei eta gertukoei begira, uztaila eta abuztuan zehar eskualdeko eragile turistikodesberdinak elkarriketatuko dira Goierriko produktu turistikodesberdinak promoziona ditzaten.
- 2an baita ere, Euskal Fondoa Elkarrekin bildu gara El Salvador-eko Los Izalcos eskualdean lantzen ari diren garapen turistikorako egitasmoa gainbegiratzeko, Euskal Fondoarekin dugun lankidetzatarteko.

- 3an ere Ehunmilak proba aurkezteko prentsaurrekoan parte hartu dugu Beasaingo Igartza jauregian.
- 9an, Goierriko Hitzan, Ehunmilak-i buruz atera duen gehigarrian, eskualdeari buruzko publizitatea sartu dugu bertan.
- 11tik 13ra Ehunmilak proba ospatu da; lasterketak iraun duen egunetan, Goierriko mapa turistiko guztiak mahaian egon dira.
- 14ean Enpresa Turistiko Adimenduna programa pilotuaren auditoritza pasa dugu AENOR-eko auditore batekin Zeraingo turismo bulegoan.
- 16an Basquetour-eko Zuzendariarekin eta arduradun nagusiarekin bildu gara martxan jarriko diren hainbat ekimen aztertzeke eta datorren urteari begira kaleratuko diren laguntzak ezagutzeko helburuarekin.
- 23an Eusko Jaurlaritzako agintari politiko (Turismo Sailburua barne) eta teknikoekin elkartu gara hainbat gai jorratzeko asmokin: PTT laguntzak, tasa turistikoa, PTSRT egitasmoa, turismoko lege berria, etab.
- 26tik 27ra Ipar Ligaren barruan dagoen Zegama-Aizkorri orientazio proba ospatu da Goitur-en babesarekin: lurralde desberdinetako korrikalariak etorri dira familia kirol honetaz gozatzea.
- 29an Euskadiko natura turismoa kudeatzen duen Basquetour-eko bulego teknikoarekin bildu gara Goierriko natura produktu turistikoaren barruan garatzen ari garen ekimen desberdinak aztertu asmoz.
- Uztailean zehar, Kode Etikoaren barruan ditugun 18 enpresekin lanean izan gara programa honetako partehartzeak eskatzen dituen atalak lantzen.

ABUZTUA

- Hilabeteen zehar erakunde desberdinekin elkartu gara udazkeneko eta datorren urteko promozio turistikorako ekintzak adosteko, datorren urteko aurrekontu eta diru laguntzen berri izan eta gure egitasmoa beraien plan estrategiko berriekin nola lerrokatu aztertzeke: Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Basquetour eta Donostia-San Sebastián Turismo.

- Abuztuan zehar elkarriketa ugari egin ditugu irrati eta telebista desberdinekin Goierri eskualdea aurkeztuz, eta egunkari askotan atera da Goierriko informazioa.
- Era berean, abuztuan ere, bazkideen kezkak eta arazoak konpondu ditugu (alojamendu eta zerbitzu turistikoena batez ere), material turistikoa eskatutako leku guztietara bidali dugu eta egunero egunero informazio turistikoa eskaini dugu telefonoaren bidez.

IRAILA

- 10ean, Ordiziako Euskal Jaiak direla eta, Eusko Jaurlaritzako Turismoko eta Merkataritzako Saileko eta Nekazaritzako eta Landa Garapeneko eta Foru Aldundiko Turismo Saileko agintariekin egoteko eta biltzeko aukera baliatu dugu.
- 16an eskualde mailako Goierri Barnetik ekimeneko bileran parte hartu dugu aurrerantzean landuko diren egitasmoak azaldu dizkigutelarik.
- 20tik 21era Bekerreke deituriko “influencer”a etorri da Goierri bere familiarekin; familia turismoaren promozioari begira, eskualdeko hainbat produktu turistiko ezagutu dituzte.
- 23an Gipuzkoako eskualdetako turismo mahaian parte hartu dugu eta gai desberdinak aztertu ditugu: promoziorako ekintza desberdinak, Gabonetako promozioa, azokak, formazioa eta irisgarritasunaren gaia.
- 23an baita ere ostalaritzako ikastaro bat jarri dugu martxan Foru Aldundiko Elkar EKIN programaren barruan; urtarilera arte iraungo duen formazio honek 19 partaide izango ditu. Ondoren praktikak egingo dituzte eskualdeko establezimendu desberdinetan.
- 26an, Goiberriko kontrazalean, eskualdeko turismoari buruzko informazioa sartu dugu.
- Irailean Frantziako Petit Futé gida turistikoan azaltzen diren Goierriko edukiak osatu ditugu datorren urtean argitaratuko duten edizio berriari begira.
- Hilabete honetan zehar ere Udalerrri desberdinetako turismoko komisio eta bileretan parte hartu dugu, eta turismo arloan negozioak ireki nahi dituzten ekintzaileekin ere elkartu gara.

URRIA

- 2an eskualdeko Turismo Mahaia bildu da udako balorazioa egin, udazkeneko promozio turistikoaren berri eman eta datorren urteko egitasmoa aurkezteko helburuarekin beste gai batzuen artean.
- 3tik 4ra Italiako Davide Moroni idazlea etorri da berriro ere Goierri; Italiako Feltrinelli editorialak "Paesi Baschi e Navarra" gida liburua argitaratu behar du berriro ere, eta Goierriko produktu turistiko gehiago sartzeko helburuarekin etorri da.
- 10etik 11ra Frantziako Guillaume Garnier idazlea etorri da Goierri; Frantziako Guide du Routard gida liburu ezaguna argitaratu behar dute berriro ere, eta Goierriko produktu turistiko gehiago sartzeko helburuarekin etorri da.
- 12an Ipar Ligaren barruan dagoen Lizarrusti-Lareo orientazio proba ospatu da Goitur-en babesarekin: lurralde desberdinetako korrikalariak etorri dira familia kirol honetaz gozatzea.
- 13an Eusko Jaurlaritzak Donostian antolaturiko turismo jasangarriari buruzko kongresuan parte hartu dugu.
- 15ean Kanadako "City Style and Living" aldizkariako kazetariak etorri dira Goierri eskualdeko produktu gastronomikoak ezagutzera eta argitaratuko duten erreportaje baterako informazioa biltzea.
- 17tik 19ra Seu d'Urgell-eko (Lleida) azokan egon gara: Kataluniatik kanpoko stand bakarra izan gara eta sekulako arrakasta izan dugu beste behin ere, bai jende kopuruaren aldetik, baita prentsaren aldetik ere.
- 22an Gipuzkoako Foru Aldundiko Libe Otegi Zuzendariarekin bildu gara Aldundiak argitaratu nahi duen Gipuzkoako natura eta kirol gida turistiko berria aztertzekeko helburuarekin.
- 30ean Goierriko turismo bulegoen mahaia bildu da bisita gidatuen hizkuntza arazoa nola konpondu aztertzeke eta pertsonalarentzako formazio berriak adosteko helburuarekin.

- Urrian hasi eta azaroa erdialdera arte Goierri promozionatu dugu online formatoan Expressive enpresa kontratatu ondoren; kanpaina digitala jarri dugu martxan hiru estrategia erabiliz: sare sozialak, Youtube eta Programatika; Euskal Herria, Errioxa, Kantabria eta Burgos lurraldeetako 35 eta 55 urte arteko pertsonengana heldu da Goierriko informazioa formatu desberdinen bidez.
- Urrian ere, Gasteiz Hoy online aldizkariaren eskutik, Goierriko erreportajeak sartu ditugu aste bukaeratako azokak eta bisitarien mugimenduak kontutan izanda.
- Hilabete honetan, Goierriin homologatuta dauden mendi ibilbide guztiak publikatzen bukatu dugu, bai gure webgunean baita gure wikiloc-eko profilean ere; Gipuzkoako Foru Aldundiaren orrian eskaintzen diren ibilbide guztiak gure webgunean eskaintzen direnekin lerrokatuta daude, bestelako ibilbideez gain.

AZAROA

- 4ean, Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen PTSRT errekurtsu turistikoaren lurralde plan sektorialaren bileran parte hartu dugu: egitasmoaren lehen aurrerapena aurkeztu digute eta gure eskualdeari dagozkion ekarpenak egin ditugu.
- 5ean Uribe eskualdeko Jataondo landa garapeneko elkarteko teknikariarekin bildu gara HTA proiektuaren harira, bi elkartek hasierako plan pilotuko kide garelako.
- 4tik 6ra Goierriko informazio turistikoa Londres-eko WTM azoka turistikoan egon da, bai Euskadiko stand-ean, baita bertan presentzia izan duten bidaia agentzien bidez ere.
- 7tik 9ra Vic-eko Fira de la Muntanya azokan parte hartu dugu bosgarren aldiz eta sekulako arrakasta izan dugu jendearen interesaren aldetik.
- 11an, Basquetour-ek antolaturiko Meet Basque Country ekimenean parte hartzen duten Estatu Batuetako, Kanadako eta Latinoamerikako (Toronto, Miami, Los Angeles, Nueva York, Chicago, Buenos Aires, Sao Paulo eta Mexiko) 21 touroperatzaile etorri dira Goierriira, Idiazabal gaztaren munduan gehiago sakontzeko helburuarekin.

- 14tik 16ra Valladolid-en ospatu den INTUR azokan egon gara Gipuzkoako stand-aren barruan; gerturatutako jende kopurua eta jendearen interesa oso handia izan da beste behin ere.
- 18tik 20ra arte Goierriko informazio turistikoa Bartzelonako IBTM azoka turistikoan egon da MICE merkatuari zuzenduta.
- 18an Idiazabalgo Udala eta Idiazabal Gaztaren Jatorri Izendapenarekin bildu gara Torre Etxeko proiektua aztertzeke helburuarekin.
- 18an baita ere Zegamako Udalarekin elkartu gara Anduetza Parketxean egin behar diren aldaketa batzuk aztertu asmoz.
- 19tik 20ra Bizkaiko Enkarterri eskualdeko 16 ordezkari tekniko eta politiko etorri dira Enkartur-ek antolaturiko bisitan, Goierriko turismoaren garapena ezagutzera; bi egun hauetan, Goitur-ekin biltzeaz gain, eskualdeko hainbat produktu turistiko bisitatu dituzte.
- 20ean Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Turismoko Galan parte hartu dugu Gasteizen.
- 27an Goierriko Erronka Bila taldearekin bildu gara orientazioa eta zikloturismoaren inguruan eskualdean zehar antolatzen dituzten ekimen desberdinak aztertu eta elkarren arteko lankidetzaz sendotu asmoz.

ABENDUA

- 2an produktu turistiko berri bat aurkezteko prentsurrekoan parte hartu dugu Ataunen: Berria egunkariak misterio jolas bat osatu du Aralar Parke Naturalean oinarrituz eta Goitur izan da produktu honen babesle nagusia; Euskal Herriko familia turismoa du jomuga nagusizat eta eskoletan ere izango dute joku honen berri. Prentsurrekoaren ondoren, Durangoko Azokan aurkeztuko da jendartean.
- 2an baita ere, eskualdeko Udal agintarien aurrean aurkeztu ditugu datorren urteko egitasmoa eta aurrekontuak.
- 4ean Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu duen Turismoko Galan parte hartu dugu Irungo Ficoban; bertan, Goitur-ek jaso du aurtengo Turismo Saria ibilbide profesionalaren atalean, Gipuzkoako Zaindari deiturikoa.

- 9an Zegamako Udalarekin bildu gara Anduetza Parketxean gauzatu behar dituzten eraldaketa proposamenak aztertzeko asmoarekin.
- 9an baita ere Ormaiztegiko ZikloKrossa proba antolatzen duen talde berriarekin elkartu gara, beraiek dituzten hainbat zalantza argitu ditugu eta elkarlanerako bideak adostu dira baita ere.
- 11an Idiazabalgo Gazta museoaren 20. urteurrena ospatzeko prentsaurrekoan parte hartu dugu.
- 12an Zallan ospatu den “Camino de Santiago Olvidado” IV Kongresuan parte hartu dugu hizlari bezala Next egitasmoen barruan: bertan Euskadi eta beste Erkidegoetako hizlari eta entzuleak egon dira, eta gure kasuan, Gr 283 Gaztaren Ibilbidea produktu turistikoa aurkeztu dugu.
- Abenduan zehar ere, Basquetour, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako agintari politikoekin elkartu gara, Goitur-ek datorren urterako duen egitasmoa aurkeztu eta beraien subentzioen berri eduki ahal izateko, elkarlanean egingo ditugun promozioak adostearekin batera.